

Año LVII. urtea

140 - 2025

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Varia.

In memoriam.

Koldo Artola Kortajarena
(1938 – 2025)

Ekaitz Santazilia

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVII. urtea - N.º 140. zk. - 2025

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera Kepa Diéguez Barahona	229
Exploring lexical diversity in Basque news: original vs. machine-translated texts Amaia Solaun Martínez, Nora Aranberri Monasterio	273
Mendigatzaren gutunetako <ss>: hautu grafikoaren jatorriaz Leyre Rojo Horrillo	317
Hizkuntza-errutinak: euskarazko ahozko oinarrizko komunikazioan trebatzeko ibilbidea Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Olatz Bengoetxea Manterola, Idurre Alonso Amezua	349
Genero-alborapena Elia itzultzaile automatikoan, euskaratik gaztelaniarako norabidean Klara Ceberio Berger, Aitziber Elejalde, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Eneko Sagarzazu Martinez, Zuriñe Sanz-Villar, Naroa Zubillaga Gomez	383
Bigarren Hezkuntzan eskola-hizkuntza garatzeko diziplinarteko diseinu bat: kasu-azterketa bat Oihana Leonet, Olatz Lucas, Ane Lamarka	405
Intimitatearen idazketa Miren Agur Meaberen <i>Kristalezko begi bat</i> liburuan Elena Olave Duñabeitia	433
Hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai Irati Urreta Elizegi	451
Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko Enara San Juan Manso	479

Sumario / Aurkibidea

Euskarazko alfabetatze goiztiarra: dispositibo didaktikoen ezaugarritzea eta sailkapena Diego Egizabal Ollokiegi, Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Arantza Ozaeta Elorza	505
---	-----

VARIA

<i>In memoriam.</i> Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025) Ekaitz Santazilia	543
---	-----

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	551
--	-----

In memoriam. Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025)

In memoriam. Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025)

In memoriam. Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025)

Ekaitz Santazilia

Fontes Linguae Vasconum aldizkaria

ekaitz.santazilia@unavarra.es

<https://orcid.org/0000-0003-1158-821X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.11>



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.



1. irudia. Koldo Artola Kortajarena, Labrit Multimediak Euskarabidearentzat egindako *vitagraman* (egilea: Iban Toledo. Euskarabideak utzitakoa)¹.

Joan den urriaren 17an eman zuen azken hatsa Koldo Artola Kortajarena ikertzaile nekaezinak. Eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariak –Nafarroak, oro har– asko zor dio hark egindako lanari.

Artola Donostian jaio zen, eta askazi zituen XIX. mendeko euskal idazle donostiar zenbait, hala nola Ramon, Pepe eta Rosario Artola; baina, gauzak zer diren, Koldok ez zuen euskara etxean jaso. Gaztea zela lotu zitzaion ikasteari, baita ongi ikasi ere. Euskaltzaletasun hori bidaide izan du beti.

Donostiako Udal Aurrezki Kutxan lanean hasi zenetik, erakundea euskalduntzeko zereginetan ari izan zen. Aranzadi Zientzia Elkartean ere, Etnografia Sailean, buruz buru aritu zen, besteak beste, berriki joandako Fermin Leizaolarekin.

Horrekin guztiarekin batera, laster piztu zitzaion euskal mintzoekiko ardura ere. Nafarroako leku frankotan euskara gibelka ari zela ikusita, eta emazte eta seme-alabekin Erronkaribarren egindako oporraldiak estakuru, Pirinioetako ibar hartako mintzoaren azken lekukoak ezagutzeari eta grabatzeari ekin zion.

1 *Vitagrama* Euskarabidearen *You Tube* kanalean ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=pdpTRgrD-sY>



2. irudia. Koldo Artola eta Fidela Bernat (Uztarroze, 1898 – Iruñea, 1991), Erronkaribarko euskararen azken hiztuna izan zena, 1989an (egilea: Fermin Leizaola. Artolaren familiak utzitakoa).

Eta hala hasi zen, ustekabeen, bizitza osorako lan bilakatuko zena. 1970eko hamarkadatik aurrera, ibarrez ibar ibili zen Artola, Nafarroako hainbeste herritako azken euskaldunak bilatzen eta elkarrizketatzen; gaur egun desagerturik dauden bizimoldeak eta mintzairak grabazioetan betikotzen: Erronkaribarren, Zaraitzun, Aezkoan, Erroibarren, Esteribarren, Artzibarren, Imotzen, Anuen, Atetzen, Olaibarren, Odietan, Ezkabarten, Gulibarren, Itzan, Txulapainen, Sakanan...

Xaloa, saiaturia eta –hein batean– setatsua zen Artola; ezezkua baiezko bilakatzeko gai den horietakoa. Eta izate horri esker, hain justu ere, grabazio-bilduma naroa eratzea lortu zuen; urregorria dialektologiaren eta etnografiaren ikuspegitik. Baina, oharkabeen apika, gehiago ere erdietsi zuela uste dut: askoren gogoak inarrostea, hain zuzen. Izan ere, euskaldun izatearen nostalgia, plazera, ilusioa, harrotasuna eta axola ekarri zien bueltan, lotsa, bazterkeria, gutxiespena edo, hoberenean, utzikeria eta ahanztura ezabatzailea bizkar gaineen eraman zuten nafar askori.

Hori gutxi balitz bezala, palaz, pikotxaz eta etxekeoen engaiamendu ezinbestekoaz bildutako funts osoa Euskarabidearen eskutan paratu zuten Koldok eta familiak 2024ko ekainean, han zainduko eta hedatuko dutelako esperantzan.

Bilketa-lan horiek, bestalde, hainbat argitalpenen oinarri izan dira. Pedro Irizarrek, Euskal Herri osoko aditz laguntzailearen morfologia erraldoia egiteko (Euskaltzaindia, 1991-2008), esaterako, Koldo Artola izan zuen laguntzaile, eta *Euskal Herriko*

Atlas Etnolinguistikoan (Aranzadi) ere aritu zen donostiarra. Artolak berak, orobat, hainbat liburutan bildu ditu hango eta hemengo etnotestuak. Hor dira Mújicarekin eta Igartuarekin batera argitaratutako *Nafarroako euskaldunen mintzoak* (Nafarroako Gobernu, 1990), Xabier semearekin atondutako *Ziorditik Uztarrozeraino* (Aranzadi, 2014), baita *Solstizioen inguruko ospakizunak* (Aranzadi, 2020) ere. Nolanahi ere den, uzta gehiena artikulua formatura ekarri du. Azentuz, adizkien morfologiaz, euskararen mugez, euskal testu zaharrez eta dialektologiaz ari izan da han-hemenka, baina bere bildumatik erauzitako etnotestuak argitaratzeari lotu izan zaio hertsienik, *Oihenart*, *Aranzadiana* eta, batez ere, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarietan.

Hain zuzen, *Fontesen* zuzendaritza hartu nuenean, 2016an, ezagutu nuen nik Artola, Patxi Salaberriren bitartez. Horren esker beltzekoa izaten den editore lanak inoizka dakarren goxoki horietatik izan zen hura. Haatik, franko lehenagokoa zen *Fontesen* eta Artolaren arteko esteka. Galbidean edo galduta zeuden mintzoak gurera ekartzeko asmotan betiere, 1977an hasi zen Erronkaribarko etnotestuak aldizkari honetan kaleratzen. Eta halaxe, ekialdetik mendebaldera, herriz herri, Ihabarreraino iritsi zen 2022an. Zerbaitengatik da *Fontes Linguae Vasconum* lan gehien argitaratu dituen autorea, Jose Mari Satrustegiren ondotik. Denera, 41 artikulua: ez da marka makala.

Ezin ahanzt ditzaket argitaratzeko bidaltzen zizkigun testuak, ohar eta sinbolo bereziz beteak. Eta beldurrak ere bai, aldizkari akademikoen azken urteetako eskakizun zorrotzek bere lanei muzin egingen zietelakoan. Artolaren ekarpenak, ordea, ezin geldi zitezkeen tiraderan, eta denon artean, familia ere tarteko, gainditu genituen estuasunak, zenbakiz zenbaki. Ohitura hartua genuen eta, sasoi batez, Artolaren hurrengo lana noiz iritsiko zain egoten ginen *Fontesen*, hura gabe zenbakia mentsik geldituko zelakoan. Baina, nire gogoz kontra, Ihabarren eten nahi izan zuen bidaia. Arakildik mendebaldera euskalkia bizirik zegoela argudiatu zidan, adinak –eta urte pare bat lehenago izandako gaitzak ere– ahulduxe zutela ezkutatu gabe. Kinka horretan, pozik hartu genuen 2024an bere azken lana, almadien inguruko etnotestuak biltzen dituen. Beraz, 47 urteko denbora tartea hartu dute bere artikuluek, eta hil arte izan da aldizkariaren harpidedun leiala.

Halako kontuek, nahitaez, harremanak estutu dituzte, bai Koldorekin, baita senideekin ere. Eta elkartu izan gara, ikusi nahi izan ditut. Gogoan dut *Fontes Linguae Vasconum*ek 50 urte egin zituenekoa; solstizioen gaineko liburua Iruñean aurkeztu zuenekoa; 80ko hamarkadan grabatu zuen Zeledonia Zenotz ezkabartearraren alabeekin elkartu ginenekoa, Euskaltzaindiarekin antolatutako *Euskara Ezkabarten: papere-tik ahora* erakusketan; grabaketa guztiak Nafarroako Gobernuari eman zizkionekoa... eta, azkenik, Polloen hobiratu zutenekoa.

Koldo Artolak egindako urratsek izan dute aintzatespenik, alafede. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen eta Nabarralde ere sariztatu zuen. Hori guztia mendretsi gabe, ez zegoen harentzat gauza pozgarriagorik behiala erdaldundurik kausitu zituen ibar horietara euskara itzuli dela ikustea baino, orain gutxi egindako elkarriketa batean zioenez. Dudarik gabe, Artolak ere erein zuen horretarako hazia.



3. irudia. Zeledonia Zenotz (Anotz, 1908 – Iruñea, 1993) Ezkabarteko azken euskaldunaren alabak eta ondorengoak Koldo Artolarekin 2023ko azaroaren 17an, Euskaltzaindiaren *Euskara Ezkabarten: paperetik abora* erakusketan (egilea: Ekaitz Santazilia).

Koldo Artolaren lanak *Fontes Linguae Vasconum*

- 2024. Almadiak Zaraitzu eta Ezka ibaietan barrena XX. mendearen lehen erdian: euskarazko lekukotasunak. *FLV*, 137, 243-314.
- 2022. Oltzako aldaeraren inguruan (2 – Ihabarko azpialdaera). *FLV*, 133, 61-113.
- 2021. Oltzako aldaeraren inguruan (1 – Arakilgo azpialdaera). *FLV*, 132, 403-472.
- 2021. Gulibarko aldaeraren inguruan (eta 3 – Txulapaingo azpialdaera: Elbarrena). *FLV*, 131, 9-46.
- 2020. Gulibarko aldaeraren inguruan: (2 – Txulapaingo azpialdaera: Ergoiena). *FLV*, 130, 335-398.
- 2020. Gulibarko aldaeraren inguruan (1 – Gulibar bereko azpialdaera). *FLV*, 129, 39-86.
- 2019. Olaibarko aldaeraren inguruan (Bigarren erdia: erdialdeko herriak). *FLV*, 128, 387-436.
- 2019. Olaibarko aldaeraren inguruan (Lehen erdia: iparraldeko herriak). *FLV*, 127, 249-313.
- 2018. Erroibarko aldaeraren inguruan (eta 6 – Esteribarko erdialdeko azpialdaera. Bigarren erdia). *FLV*, 125, 133-190.

2017. Erroibarko aldaeraren inguruan (5 – Esteribarko erdialdeko azpialdaera. Lehen erdia). *FLV*, 124, 299-354.
2017. Erroibarko aldaeraren inguruan (4 – Ipar Esteribarko azpialdaera). *FLV*, 123, 115-166.
2016. Erroibarko aldaeraren inguruan (3 – Hego Erroibarko azpialdaera. Bigarren erdia). *FLV*, 122, 245-302.
2016. Erroibarko aldaeraren inguruan (2 – Hego Erroibarko azpialdaera. Lehen erdia). *FLV*, 121, 5-66.
2015. Erroibarko aldaeraren inguruan (1 – Ipar Erroibarko mintzairak). *FLV*, 120, 229-276.
2015. Aurizko aldaeraren inguruan (Aurizko eta Orreagako euskararen lagin batzuk). *FLV*, 119, 61-108.
2014. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan). *FLV*, 118, 393-435.
2014. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (8 – Elkanoko aldaerarekiko zenbait erkaketa). *FLV*, 117, 25-100.
2013. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (7 – barnera begirako zenbait erkaketa). *FLV*, 116, 31-90.
2012. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (6 – Hego-Esteribarko laginak: Ilurdotz II). *FLV*, 115, 195-254.
2012. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (5 – Hego-Esteribarko laginak: Ilurdotz I). *FLV*, 114, 5-60.
2011. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (4 – Ipar-Artzibarko laginak: Arrieta). *FLV*, 113, 261-326.
2010. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (3 – Ipar-Artzibarko laginak: Hiri-berri). *FLV*, 112, 5-50.
2007. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (2 – inkestaren azken galdera-sortak). *FLV*, 104, 5-32.
2006. Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1 – sarrera eta lehen galdera-sortak). *FLV*, 103, 393-428.
2006. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (eta 10 – Ibiztako apurrak / gehigarriak). *FLV*, 102, 185-232.
2005. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (9 – Espartza: ahozko testuak). *FLV*, 99, 213-264.
2005. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (8 – Espartza: taulak/esaldiak). *FLV*, 98, 5-58.
2004. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (7 – Orontze). *FLV*, 97, 401-444.
2004. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (6 – Ezkaroze). *FLV*, 96, 189-222.
2004. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (5 – Otsagi: ahozko testuak). *FLV*, 95, 5-52.
2003. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (4 – Otsagi: esaldiak). *FLV*, 94, 381-425.
2003. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak: (3 – Eaurta: bukaera). *FLV*, 93, 211-246.
2003. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak (2 – Eaurta: jarraipena). *FLV*, 92, 77-114.
2002. Zaraitzuera aztertzekeo ekarpen berriak 1 – Eaurta (hasiera). *FLV*, 91, 389-436.
2001. Olaizko euskal eskuizkribuak. *FLV*, 88, 485-520.
2000. Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (eta II). *FLV*, 85, 487-512.

1992. Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera). *FLV*, 60, 187-228.
1991. Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (I). *FLV*, 58, 247-282.
1990. (Josu Tellabiderekin batera). Euskararen muga 1980. urtean. *FLV*, 56, 247-260.
1980. Erronkariko «uskara»ren azken hatsak *oraino're!* *FLV*, 34, 49-86.
1977. Erronkariko uskararen azken hatsak... *eino're!!* *FLV*, 25, 75-108.